

Egillearen denporan idazten ezpada bere bizitza, gero urteak joan eta urteak etorri sarritan gertatzen da elezar biurtzea, jendeen buru-ametsetakaitik, olerki-kantuak berak emoten daberen gaia oñarriztat arturik. Ori literatura guztietan gertatzen dana da, baiña eztaukogu guretik zertan urten, ba Decheparegandik asi eta Etchahunen artean badaukogu nor aipatu.

Ondo aztarketan ditu Larralde-Bordachuriren bizitza ta bere olerki ezaguna:

*Mila zortzi ehun eta hamabortzgarrena,
Ni Ahazparnen preso hartu nindutena.*

P. Lartabalek teatroa egin badau Larralde-Bordachuriren ganean, benetako kondaira dakargu Haritschelharrek. Hazparneko artxibuak artu ditu iturritzat. Beko-Pirineuetakoak eta Rocheforteko Itxaso-Artxibuak be bai, eta bibliographia ugaria gañera.

Badaki gauzak bere lekuetan ipinten eta bear diran moduan esaten, astuntasun barik, gogoz irakurtzeko moduan. Nik beintzat oso gustora eta baten baiño geiagotan irakurri dot, zatika-zatika batzuetan asi ta akabau beste batzuetan.

N. A. G.



JEAN ETCHEPARE. *Mendekoste gereziak eta beste*. "Eskualtzaleen Biltzarra"-ren gerizpean *Goiztiri*-k atherea. Bayona, 1963.

Eun t'emeretzi orrialdeko liburu onek P. Charritton-en aintzinsolasa dakar Jean Etchepare nor zen eta zelako idazlea zen adieraziz, ta agurrezko oar bat gazterik galdu zen izkiriatzalle oni bere aitak egiña.

1960-eko otsallean "Eskual-Kulturaren-Alde" batasunak eratu zuan aurrentzako kondairarik onenari sariketa, ta Etchepare gazteak, artean 22 urte zitualarik, irabazi zuen sariketa ori bere *Mendekoste gereziak* ipui politarekin. Andik denbora gutxira, 1961-eko abenduareu 10-ean, il zen gure idazlea, 24 urte juxtu zitualarik.

Sarituaren izena aintzat arturik, aurretiko ta geroztiko lanekin egindako bilduma bat da ipui ta azalpenak aurkeztuz.

Lanetatik garbi ikusten da aren begi-kolpe argia: oarle bikañez gañera kezkatu nabari da. Azalpenetan, ezerk igesik egiteke, inguruminguruak argi ta garbi adieraziz dijoa. Maiz, bere pentsamenak metaforaz biribilduz: "Ai nere buruari pentsatu gabe bizi ahal banindadi!". Bere baxenabar euskalkian, inoiz itanoka, onela mintzo da: "Gizonak ez dezaken bere zoriona senti (zion erbestetik maitemindu batek bere emaztekiari), ez baitaki zer den zoriona. Bainan gero dun ohartzen, orhitzearekin, atzo memento hura berriz iragan nahi likea. Bizkitartean memento hura berean, zorion mikorik sendi edo atzeman".

Onelakoa da Etchepare zanaren idazmota, onelakoa bere kezka, noizpeinean larrimindurik. Bere orrialdeak barna somatzen ditugun gertaera ta esaerak nekez aitzu genezazke: *Kattalin gorri*, *Donadoa*, *Etxekoak*, *Argi-sirrinta*, *Kurutze gorriak* eta abar, gogoangarri izango dituzte irakurleak.

Ez pentsa denak illunak direnik. Sarri mintzo da itxaropen argiz. Era zabalekoa baita gazte onek utzi digun uzta. "Bihotzean su baten ukaitea aski da, zorionaren ukaiteko". Ta euskera ta Euskalerria zituari bere biotzeko sua.

Izkuntza, esan degun bezela, Garazi aldekoa da, jatsuarra baitzen. Nobelagintzarako doai bereziak agiri zaizkio orren gazterik galdu genuen idazle bikain oni.

J. S. M.



EUSEBIO ERKIAGA: *Aita Kandido Basabe, S. J., euskal-idazlea (1867-1928)*. [Gráficas Bilbao, 1963]. 21 orrialde.

Aita Basaberen bitzta ta euskal idaztietei buruz barri ugari emoten deusku Erkiagak lan onetan, Euskaltzalea zan ezkeru, Lekeitiar Josulagundiko onen bizitzako egitada bat baiño geiagok daukee zer ikusi euskereagaz.

Eleizgizona eta Euskaltzalea, edo Lekeitioko Aita Basabe Josulagundikoa. Orixe izango litzake izenburu edo titulu egokia bere bitzta osotu-luze bat egiten daneko liburuarentzat. Mixiolari aundia izan bazan, euskaltzale asko txikiagoa ez.

Bere erritarraren idaztankera ondo aztertzen dau Erkiagak, eta gero bere idaztietatik ondo aukeraturiko zati batzuk be argitaratzen deuskuz.